

2023/2024ko AZTERKETEN EGUTEGIA ERIZAINZAKO 4. MAILARA PASATZEKO (aurrebaldintzak dituzten irakasgaiak). ARAUTEGI ESPEZIFIKOA

Deialdia aurreratzeko eskaria egiteko ikastegiko webguneko inprimakia bete behar da (Tramiteak: Inprimakia > Erizaintzako 4. mailara pasatzeko azterketak;). Inprimaki hori bete eta sinatu ondoren, posta elektronikoz bidaliko da ikastegiko idazkaritzara. Eskariak **2023ko uztailaren 14tik 20ra** bidali behar dira, egun biak barne. Azterketak **2023ko irailaren lehen egunetan** egingo dira.

Irizpideak:

1. Erizaintzako laugarren mailako *Practicuma IV* eta *V* irakasgaietan matrikulatu ahal izateko **aurrebaldintza diren irakasgai gainditu gabeen** azterketa egitea eskatu ahal izango da. Hain zuzen ere, irakasgai hauena: Patologia: Oinarrizko Zainketak, Farmakologia, Erizaintza Klinikoa I, Erizaintza Klinikoa II, Erizaintza Klinikoa III, Erizaintza Klinikoa IV, Bizi Zikloaren Erizaintza I, Bizi Zikloaren Erizaintza II, Erizaintzaren Oinarri Teorikoak, Erizaintzaren Oinarri Metodologikoak, Harremanak eta Komunikazioa Zainketetan, eta Komunitate Erizaintza.

2. *Practicuma IV* eta *V* irakasgaietan matrikulatu ahal izateko aurrebaldintza diren irakasgaiak deialdi honetan **gainditzen** dituzten ikasleek **matrikula aldatu ahal izango dute irailaren lehen egunetan**, *Practicum* horiek egiteko.

3. Azterketa gainditzen ez duenak 2023/2024 ikasturteko ohiko deialdia agortzen du eta ezin izango da aurkeztu azterketara **ezohiko deialdira arte**.

4. 2023ko iraileko deialdi aurreratura aurkeztuko diren ikasleek ezingo dute eskatu 2023ko iraileko deialdian irakasgaiak ebaluazio bereziaren bidez gainditzea, ez baitituzte beteko Graduak titulazio ofizialetako ikasleen ebaluaziorako arautegiko 29. eta 30. artikuluen arabera bete beharreko baldintzak (agortutako deialdi kopurua).

Prozedura:

- Eskariak jaso ondoren, kasuan kasuko sailetara bidaltzen dira, azterketaren data erabaki dezaten eta horren berri eman eskaria egiten duten ikasleei.
- Aipatutako irakasgaien matrikula uztaileko automatrikularen epean egiten da eta, ondoren, ezohiko epe bat irekitzen da idazkaritzan (irailaren xx(e)tik xx(e)ra) laugarren mailako matrikula aldatzeko. Horrela, irakasgaiak gainditu dituzten ikasleek **practicumak** egin ahal izango dituzte.
- Azterketak eta kalifikazioak espedienteetara pasatu arte gordetzen dira.